



Sarrigoitia (-a) etxebizitza

Aldacrak:

Ahozkoa: Sarrigoiti

“... la casería titulada Sarrigoitia, en el termino de la Anteiglesia de Berriz, en la cofradía de Sarria... de una vivienda, compuesta en el piso bajo de cocina, dos cuartos, y una cuadra, en el principal de cuartos, camarotes y pajares, teniendo al frente una accesoría con el antusano o zaguan, ocupa una superficie de doscientos cuarenta y seis estados, equivalentes a nueve áreas, treinta y seis centiáreas...”

DJE, 4/171 or. (1880)



43° 11' 27"

2° 35' 44"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Bizitza bakarrek baserri honen gainean aurkitzen dugun lehendabiziko aipu dokumentala 1704koa da, *Sarrigoitia*, alegia. Bizkaiko lehen su-errola horretan Sarria kofradiaren goialdean kokatzen den baserriari erreferentzia egiteko erabiltzen da forma hori. Inguru honetan kokatzen diren baserriekin gertatzen den bezala, dokumentazioan jasan dituen aldaketa bakarrak dira: hasiera batean, *S* hizkiagertzen da idatzia Sarria, *Sarrigoitia* erak erakusten duen bezala, eta gerora, aldaketa bakarrak dira batera idatzita agertzea, hots, *Sarrigoitia* (1857, BUA, Viv.), edo bananduta, hau da, *Sarri-Goitia* (1910, BUA, RU). XX. mendearen erdialdetik aurrera, aipu gehienetan dena jarraian idatzita agertzen da, hots, *Sarrigoitia*. Ahozko transmisioan *Sarrigoiti* forma erabiltzen da.

Etxea berria da, baina XVII. mendeko etxeen antza dauka, Berriz inguruan sasoi horretan egin zirenen estiloan eraiki baitzuten. Etxe zaharrago baten harriak erabili zituzten, eta batean 1818ko data irakur daiteke. Bi gorputz dauzka aldamenetan, eta erdian, beste bat, egurrezko dintela duen atarte batekin. Aldamene-tako gorputzen beheko solairua harrizkoa da. Hormetarako harlangaitza erabili zuten, eta harlandua, oster, alboko leihoetan eta kantal guztietan. Bigarren solairuan, berriz, fatxada luzitu eta pintatu egin zuten, kontraste handia eginaz alde horietako baoen harriaz eta erdiko leiho zabalaz. Alderik alde doan egurrezko balkoia dauka, etxeari horizontaltasuna ematen diona. Erdialdean, leihoaren gainean, imitazioko zurajea eta adreilua ditu, eta teilatuari eutsiz, egurrezko besoak.